

ICHASOAN

JAKINTSUA TA EZJAKIÑA

Egun batean sartu izantzan
jakintsu bat batelian
bere asmoan igarotzera
denbora uran gañian

Abiatu zan batel polita
itsas eder zabalian
gaztecho batek arraunakin
eman zion indarrarian.

Iruditurik mutill gaztia
zala buruz chit argiya
jakintsu arrek esaten dio:
erantzun zazu egiya.

—¿Jakingo dezu dudarik gabe
kartachoak izkribatzen?
—Ez dakit jauna, ta ez det ikasi
liburu bat irakurtzen

—Ezpadakizu ¡gizarajoa!
zera errukigarriya
sinista zazu galdu dezula
zere bizian erdiya.

Erantzun zazu: ¿ez aldakizu
kondaira edo historirik?

—¡Nola! erakutsi ez badirate
neri orlako gauzarik?

—Galdu dezula esaten dizut

Gaztiak orla ikusitziak
neri ematen dit pena.

Ala izketan zijoazela
ekaitz gogorra zan sortu

itsas orru ta turmoi soñuak
egĩñ nai zutela gortu.

Eta mutillak, jarririk anchen
alde deneta begira
dio: ¿ikusten aldu beorrek
baga orien mugira?
nere iritziz egingo degu
batelakin jira-bira.

Chit jakintsua da beorri ta
¿jakiño du (¡bai!) igari?
—Gauz asko dakit baña ez nuen
beñere ikasi ori.

—Jauna: orduan galdua dauka
bere biziya osua
bada laster da bedorren jabe
dudik gabe ichasua.

Et'au esanik batelchua zan
jira-biratu batetan
ta jakintsua an galdua da
beti betiko bagetan
ta ezjakiña libratu igari